

IBAN ZALDUA ETA KARLOS ZABALAREN IPUINENTZAT IZAN DIRA BESTE BI SARI NAGUSIAK

Mikel Tabernak irabazi du Tene Mujika Saria

■ Guztira 37 ipuin aurkeztu dira, eta epaimahaikideek idazlanen «maila ona» azpimarratu dute

■ Aintzane Agirrebeñak eta Iraitz Agirrek jasoko dituzte 18 urtetik behekoentzako akzesitak

■ Elkarlanean argitaldariak eta Debako Udalak maiatzean plazaratuko dituzte saritutako lanak


Joxi Ubeda / Donostia

GUZTIRA 37 ipuin jaso dituzte Tene Mujika Narrazio Laburren Sariko antolatzaileek, eta dagoeneko ezagutarazi dituzte 15. deialdiko idazlan sarituen eta egileen izenak. Hala, Mikel Taberna beratarak jasoko du lehen saria, Iban Zaldua donostiarrek bigarrena, eta Karlos Zabala irundarrak hirugarrena. Aintzane Agirrebeña eibartarrak eta Iraitz Agirre arrasatearrak, berriz, akzesit bana jasoko dute. Elkarlanean argitaldariak eta Debako Udalak heldu den maiatzerako argitaratuko dituzte lan sarituak.

Gerardo Markuleta, Miel Anjel Elustondo eta Juan Luis Zabala arduratu dira idazlanak irakurri eta azterteaz, eta «maila ona» ikusi dute Tene Mujika Narrazio Laburren Sariko 15. deialdiko idazlanetan. Sarituriko ipuinez gain, beste hainbat ere argitaratzeko modukoak direla adierazi dute. Hala, beste hiru ipuin argitaratzeko aholkua eman diete antolatzaileei. *Gandutan desegindako aintzina*, *Izotzaren gorria* eta *Biribilketa* dira hiru ipuion izenburuak, eta antolatzaileek argitaratzea erabakiko balute emango lituzkete egileen izenak.

Mende honen erdialdeko istorioa

Emakume bat da Mikel Tabernaren *Bota xoxa!* ipuineko protagonista. Egileak berak EGUNKARIARI esan dienez, ipuina Euskal Herriko herri baten gertatzen da, «gure barreneko mugako herri batean», eta istorioa mende honen erdialdean izan daiteke, egileak data zehatzik aipatzen ez duen arren. Herri hartan bizi diren hainbat pertsonaren inguruko kontuak eta gertaerak eta herriko bizimodua ere erakusten ditu Mikel Taberna egileak: «Kontrabandoa ageri da, guardia zibilak, eta momentu hartan



JOXE LACALLE

Mikel Tabernak idatzi *Bota xoxa!* ipuinak irabazi du Tene Mujika Narrazio Laburren lehen saria.

hor kokatzen diren pertsona batzuk».

Ipuinak «tentsioa» baduela dio Tabernak. «Gertaera nagusi baten inguruan nolabaiteko tentsioa sortzen da, baina ez da tragedia. Ezta umorea bilatzeko egindako idazlana ere».

Mikel Taberna, itzultzailea eta EGUNKARIako kolaboratzailea, pozik da sariarekin. «Poza ematen du. Lan egiten duzu, eta, gainera, sariak argitaratzea ere badakar, eta hori poz bikoitza da. Badakizu ipuina ez dela ezkutuan geratuko, plazaratuko dela».

Mikel Taberna beti idazten aritu izan da, eta saritua izateak «animo handixeagoa» eman dio «segitzeko eta gusturago aritzeko», atzo esan zuenez. «Poesia lan batzuk egiten ditut, eta, bestalde, narrazio laburrak. Bietan aritzen naiz pittin bat».

Lan sarituak

Saria	Idazlana	Egilea
1. saria (175.000 pezeta)	<i>Bota xoxa!</i>	Mikel Taberna
2. saria (140.000 pezeta)	<i>Entropiarena</i>	Iban Zaldua
3. saria (110.000 pezeta)	<i>Begia da mundua</i>	Karlos Zabala
Akzesita (25.000 pezeta)	<i>Etorkizunaren esperoan</i>	Aintzane Agirrebeña
Akzesita (25.000 pezeta)	<i>Luzifer</i>	Iraitz Agirre

Michel Petrucciani piano jole ospetsua pausatu zen astearte gauean

■ *Biriketako infekzio batek jota hil da 36 urteko artista famatua, New Yorken*

Lutxi Fourcade / Baiona

FRANTZIAKO jazz mundua berriro dolutan dago. Stephane Grapelliren ondoren, Michel Petrucciani 36 urteko piano jole ospetsua pausatu zen astearte gauean, New Yorken. Beth Israel ospitalean ingresatu zuten baina biriketako infekzio azkar batek jota hil zen, Petruccianiren agente Bernard Ivainek atzo adierazi zuenez.

Txikia izan arren, Michel Petruccianik fama handia zuen jazz munduan. Musikarien familia batean sortua, eritasun genetiko batek gelditu zuen bere gorputzaren handitzea. Alabaina, karrera handia izan du eta sari ospetsuenak erdietsi ditu. Hamar urteko karrean, musikari eta kantari handienekin lan egin zuen, hala nola Dizzy Gillespie, Wayne Sorter edo Gerry Mulliganekin.

Kiko Venenok azken lana aurkeztuko du gaur Iruñean, 'Puro veneno'

Erredakzioa / Iruñea

KIKO VENENOK *Puro veneno* diskoa aurkeztuko du, gaur, Iruñeko Gaiarre antzokian, gaueko 21:00etatik aurrera. Lan berrian bere abesti ospetsuenen bertsioak jaso ditu Kiko Venenok. Gaiarren, Raul Rodriguez, Juan Ramon Carames, Rafael Montañana eta Charly Cepeda musikariek joko du Kiko Venenok. Antzokia bete egingen da, sarrera guztiak salduak baitira.

Gaur Iruñean eta larunbatean Donostiako Victoria Eugenia izango da Kiko Veneno, gaueko 21:00etan.